

# Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra

## (I)

KOLDO ARTOLA \*

### AURKEZPEN GISA

**F**idela Bernat Aracués 1898. eko apirilaren 24ean sortu zen Uztarrozen, guraso biak —Marcos Bernat Marco eta Lorenza Aracués Gorria beren deitura osoa— herri berekoak zituela. Bi ahizpa eta hiru anaia izan zituen, zeinetarik ahizpa biak eta anaia gazteena gaur egun bizi diren. Ahizpetarik batek eta anaiak ulertzen dute euskara, neronek frogatu ahal izan dudanez, hizketarako trakets xamar agertzen badira ere.

Ezagutu, berriz, Fidela anderea Iruñean ezagutu nuen 1975.urtean, hamar bat urte lehenago hiri honetara bizitzera etorria baitzen bere familiarekin. Hala ere herriko beren etxea, “Xaro” izenekoa, ez zuten utzi, bertan noizean behin, uda aldean batez ere, bolada luze samarrak igarotzen dituztela.

1977.ean aldizkari honetan argitara emaniko “Erronkariko ’uskara’ren azken hatsak... *oraino’re!*” izenburuko lanean (25.zk.) haren aipamena egin nuen, eta gauza bera handik hiru urtetara (34.zk.), izenburu berdin xamarreko beste batean ere.

Gure “tía Fidela” hau, beraz, —“tía” hori, Erronkari aldean, adineko andere guztiei eransten diete— duela urte-mordoxka hasi nintzen bisitatzen, harez gero, noski, pixkanaka-pixkanaka, material ugari bezain interesgarria eskaini ahal izan duelarik.

\* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Alabaina, azken aldi honetan zenbait gauzatan sarturik egoteak galerazi ez baina, atzerarazi egin dit orain argitara eman nahi nukeen moduko lan bat prestatzea, gauza horietako bat, hain zuzen ere, euskal dialektologiaz betidanik kezkatu eta maitemindurik ezagutu dugun Pedro de Yrizar jaunari, aspaldi honetan gertutzen ari den lan sakon baterako, duela zazpi bat urte nire laguntza eskaini izanaren ondorioa izanik, geroztik, lerro hauen bidez aurkeztu nahi dudan lanarekin —Uztarrozeko euskal aditzari buruzko lan bat aurkezten ari naizen neurrian, noski— zerikusi behar haundia izango zukeena; hots, bere lanerako premiazkoa zaion aditza biltzearen Yrizar jaunak prestaturik zeukan 13 orritako galde-zerrenda zenbait lekutan betetzen hasiz gero, herri honetakoari ere bere txanda inoiz iritsi zitzaien, nahiz hemen hasi orduko, egia esan, lehendik bildu datu asko eskuraturik izan.

Ondoren, eta bertako datuak sailkatu eta paperean idatzi bitartean, datuok aldizkari honetara ere gisa berean igor nitzakeela pentsatu nuen eta halaxe jakinarazi nion orduko gutunean ikus daitekeen bezala, berak adostasun osoa agertu zidalarik lehenbailehen bidaltzeko aholkua emateaz gainera.

Aipatu lana, beraz, eta edukinari dagokionez, berari bidali bezala utzi dut, kode-gisa erabili izaniko zenbaki batzu aldatu egin behar izan baditute ere, ahalgarritzko irakurlea alferrik ez nahasteko.

Eta aurkezpen gisako iruzkin llabur hauek eginik, hainbestetan aipatu lanari lekua egingo diot.

(Ondoko lerroetan, beraz, 1989.eko maiatzean Yrizar jaunari Uztarrozeko aditzari buruz bidali nion txosten osoa dator. Txostenaren sorrera gisa prestatu nuen gutunean, bada, eta gizalegezko iruzkin txiki baten ondoren, zera nioen):

Eta mamira joaz, hona, azkenik, UZTARROZEko datuak, 1975.az geroztik bilduz joan naizen materialen artetik ateratzen hainbeste kosta zaizkidanak, arazoa zera izan dela: hizkera hau hain bitxia izanik, ahal adibiderik gehienak eskaini nahi izan dizkizut adizkiak ere ahalik testuinguru desberdin gehienetan aurkeztuz. Honela, batzutan, adizkia soilik ikusiko duzu; bestetan, galderak egitean erantsi ohi zaion atzizki gisako a batekin; inoiz ere bai baldintza-kasutan edo ezezko esalditan; aurrizki edo atzizkiei loturik (sandhiak eta guzti) nola portatzen diren... eta abar, guzti hauek ere aski interesgarriak bestalde. Jakiña, horiek denak bilatu, sailkatu eta behar lekuan paratzeak denbora dextente eramanez, horregatik atzerapena. Bide batez zera esan nahi dizut: Erronkariko gai hauek aspaldi nituen alde batera utzita, lehenik EAEL deritzanari dedikaturiko denbora eta, azken aldi honetan, zuretzat hain pozik biltzen ari naizen datuak kausa izan direlarik, denetarako astia iristen ez denez. Baina orain, ordea, datu hauek zuri bidali beharraren egokierak aukera polita ematen didala uste dut Fontes-a artikuluxo bat bidaltzeko; hots, aprobeztatu nahi nuke nire oraingo ahalegin hau aspaldi pentsatua bai baina, denbora ezagatik egiteke neukan honen antzeko lan bat hara bidaltzeko. Zer iruditzen zaizu? ongi iruditzekotan pozik hartuko nuke zuk eman edo egin nahi zenidakeen edozein aholku, zuzenkerata... edo zer ipini zer kendu beharko nukeen niri esatea. Hitzegingo dugu, beraz, ongi baderitzazu. Eta goazen, bada, paper horiek betetzeak ekarri

didan zenbait oharpen egitera, lanaren lagungarri jarraian aipatzen dizkizudan lanak kontsultatu ditudala esan ondoren.

— Etudes sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz. Louis-Lucien Bonaparte, Londres 1872.

— Particularidades del dialecto roncalés. R.M. de Azkue, EUSKERA 1931.

— Contribución al conocimiento del dialecto roncalés. J.J. Beloki, J. Elozegi, P. Sansinenea eta K. Mitxelena, RSVAP 1953.

— Erronkariko euskal-ondakin batzuk (I). Aita K. Izagirre, RSVAP 1959.

— Erronkariko euskal-ondakin batzuk (II). Aita K. Izagirre, RSVAP 1961.

— Erronkariko 'uskara' ren azken hatsak... *eino're!* K. Artola, FONTES 25, 1977.

— Erronkariko uskaraz elestak. J. Estornés Lasa, FONTES 40, 1982.

Hara, hasteko, duela jadanik mendi erdi bat pasea, Azkuek, bere lan horretako III Kapituluan (Restos del flexionario, 235 orr.), zioena: I- "En el dialecto roncalés conjugan y han conjugado (por lo menos en lo que arrojan escritos suyos) muy pocos verbos".

Eta geroxeago: III- "Cualquier otro dialecto, tal vez aún el suletino, aventaja al roncalés en número de verbos conjugables...".

Hots, gure egunotan aurkitu duguna iragartzen ari zitzagula dirudi, ikusi besterik ez dago UZTARROZEko gure laguntzaileari zer gertatzen zaion aditzak jokatzera. Har dezagun, horretarako, Iparraldeko ekialderako prestaturik daukazun inkesta —errespetuz nahasiriko alokutiboa biltzeko modukoa, alegia— **zuri datuok aurkezterakoan erabili dudana**<sup>2</sup>, eta zera aurkituko duzu: **lehenengo eta hirugarren orriak kenduz gero, gainerakoak sobran daudela**, hauei egokituriko erantzun guztiak, gure Fidelak, bi orri haietakoei egokitzen dizkielako.

Honela, 2. orrian<sup>3</sup>, **erori zait esateko, erori da (niri)** erabiliko zuen bere amarekin hizketan ari bazen, **erori dun (niri)** ahizpa (edo berdin anaia) batekin ari bazen, eta **erori zu (niri)** hain konfidantza haundikoa ez den lagun batekin ari izatekotan.

Hots, 1953.ean ere (RSVAP, 535 orr.) **arbolari erori dun oja** "se le ha caído la hoja al árbol" bildu zuen lehen aipatu taldeak, nahiz, orri berean, **ene ama xuáiten ditá** jaso, honi buruz biltzaileek berek —"gip. **zaidak, zaidan?**" zioten— halako zalantza agertzen zutela. Ricarda Pérez-ek (Fontes 40, 476 orr. 6) **niri gustatan ditan ñoa** eman zuen; hau egokia izatekotan —eta ez zait iruditzen— 1953.eko erantzun hura "indefinido"tzat har liteke. Balbina Ederra-k, aldiz (Fontes 40, 472 orr. 83), **níri gústatan da ñóa** erabili zuen<sup>4</sup>.

2. Inkesta hau, beste era batez prestaturik dagoenez, 13z ez baina, 11 orriz osatzen da.

3. Galde-zerrendaren 2. orrian aditz laguntzaile iragangaitza, bipertsonala, biltzen da.

4. Mitxelenaren taldeak, halere, aipatu lan hartantxe, *Ai! átte zítá, átte!* (511 orr.) eta *aintz bát xin bazítara ménditik* (508 orr.) bezalako esaldiak ere bai bildu zituen, Izaban biak.

K. Izagirrek ere, bide beretik, *biótza báratu zítan* "se me ha parado el corazón" —hikako emak. alokutiboarekin— eta *erori zeina loteria?* "¿te ha caído la lotería?" *iri ezein erori deusere*

4 eta 5. orriak <sup>5</sup>: Azkueren denboran —**BIDANKOZEN**, itxura denez— era egokiak erabiltzeaz gainera hain egokiak ez zirenak ere erabiltzen hasiak ziren:

**ongi**: *eta yaz kain basto maiak ezbaiyai ezaguntan* (311 orr.).

**gaizki**: *zinez erraiten dezeit bata xan bear dazeidala* (307 orr.).

Hots, azken esaldi honetan tripertsonalak bipertsonala du ordezkatzeko, **NORK-NOR** erabili ordez **NORK-NORI-NOR** erabiliz.

**UZTARROZEN**, halere, 1953. urtean, **Juangéikuak kastigatan yei** (536 orr.) eta (**Ama Berjinak**) **tapaten yai** (528 orr.) bezalako esaldiak jaso ziren, nahiz gero, 1959. ean, (290 orr.), **ez iená ikusi niri karrikán?** “no me viste a mí en la calle?” eta **eztiar ékusi yíri karrikán** “no te he visto a ti en la calle” gisako esaldi desagokiak bildu. Urte batzu beranduago ere (Fontes 40, 474 orr. 122) ... **eta ez zeyá gastigatu** “y no (me) castigaron” eta ...**eta oiltu zía amágana** “y (me) mandó a la madre” (474 orr. 151) esaldi desagokiak jaso ziren. Prozesua hondatuz zetorrela argiro ikusten da, beraz.

6.etik 11. erainoko orriak, **biak barne** <sup>6</sup>: Fidela Bernat-ek ez du, laster antzemango duzunez, **NORK-NORI-NOR** erabiltzen, **NORK-NOR** + **datibo-ezaugarria** baizik, era honetan bere gabeziak nolabait konponduz.

Tripertsonal hauei dagokienez, Balbina Ederra-k (Fontes 40, 471 orr. 26) **aiták érran zion bere sémeari** erabili zuen, duela oraindik urte gutxitxo, eta Carmen Dronda-k (RSVAP 1953, 526 orr.) **mázte baték lépua ebáki ziózun** (zukako alokutiboa eta guzti). Aita K. Izagirrek, alabaina, bildu zituen esaldi tripertsonal ugariren artean, **burzekiák emon ditzázu bízpor garrotekál di** “el amo me ha dado unos cuantos palos” bezalako bat jaso zuen (1959, 287 orr.), esaldi honek zer pentsaturik ematen duela: hots, badirudi, pluraltzailea eta zukako alokutiboa kenduz gero, **emon dita** gera litekeela, eta hona **NORK-NORI-NORK**o kasu honetarako Mitxelenaren taldeak **NORI-NO-Rerako harturiko dita** berbera <sup>7</sup>. Zein zertarako da egokia? tripertsonala izatearen itxura gehiago du adizki horrek, nire ustez behintzat. Balbina Ederra-k, bestalde, ohizkoaz gainera, beste zentzu batekin ere bai erabili zuen goraxeago aipatu zion hori (Fontes 40, 474 orr. 137): **onki xoáitan zió-la Érunberrin** “... que le iba muy bien en Lumbier”, baina ez dut uste kasu honetarako aproposa denik.

“a tí no te ha caído nada” (1959, 304 eta 306 orr.) gisako esaldiak jaso zituen, Izaban ere. K. Artolak, azkenik, 1973. urtean, *abér e... gústatu zaióinetz oraigúneco... fiéstá, bai?*, hots, “ia gustatu ote zaien —“a ustedes”, alegia— arestiko festa, bai?” izatera datorrena bildu zuen, Izaban orobat (Fontes 25, 82 orr.). Pedro de Yrizar-ek zuzendu zidan, arrazoi osoz, Fontes hartan nik emaniko itzulpena (99 orr.), *zaion* ez baina, *zaien* behar zuela argiro utziz (Contribución a la dialectología de la lengua vasca, tomo II, 1981, 74 orr.).

5. Galde-zerrendaren 4 eta 5. orrietan aditz laguntzaile iragankorra, bipertsonala, biltzen da.

6. Galde-zerrendaren orri hauetan aditz laguntzaile iragankorra, tripertsonala, biltzen da.

7. Mitxelenaren taldeak, alabaina, **dita** hori bera testuinguru egoki batetan jaso zuen: *b(i)ar dita* —“usted” alegia— **emon, berréin peséta...** (511 orr.), eta are **dítarat** —edo **dítarak**— ere, gizonetzkoekiko alokutiboa eta guzti (514 orr.). Guzti hau Izaban.

K. Izagirrek ere, **dita** bildu zuen indefiniturako: *orrek erran dita* “usted me lo ha dicho”, hikako era egokiak ere bai biltzeaz gainera: **dítak/ditan** (1959, 305 orr.).



Baina oro har, eta halako kasu bakan batzuren salbuespena eginik, bipertsonalek tripertsonalak ordezkatzeko erakusten duten geraezinezko joera aspaldiskotik datorrela dirudi. Izan ere, K. Izagirrek (RSVAP 1959, 297 orr.) **amandréa, zéren erraitan du gáiski?** “madre, ¿por qué me riñe?” bildu zuen, eta baita José Estornés Lasak (Fontes 40, 475 orr., 152, 162, 167 eta 176etan) **émon niá amári eta aítári, égin diar askária aítári, eta amák érran dien** (niri, alegia), eta **eta emoiten dun mazteér** “y (les) das...” bezalako esaldiak ere.

Eta aspaldiskotik datorrela esan badut, hara zergatik diodan: Azkuek, duela honuz gero 60 bat urte, ongi jokaturiko beste askoren ondoan, era tripertsonalak bipertsonal bihurtzen hasiak ziren beste batzu bildu zituen ere; hona adibideak:

- *fan eta konta zazei* (= ezazue) *Juani...* (250 orr.)
- *bapanak bere sanduari otoi egiten du* (265 orr.) sandua hori oso arraroa.
- *liburu zerratiuak ezdu ñori ere eratsukitan* (276 orr.)
- *nai dionak* (= duenak) *osagarri, lotsa ekun bear du martxoko iguzkiari* (278 orr.).
- *txut* (txutx behar lukeela dirudi) *egoztan dionak* (= duenak) *zeuriari...* (283 orr.).
- *eta berze bat genten baitud ene anaie martxoari* (307 orr.)
- *erran dazan txitxiterari...* (313 orr.).

Inoiz ere bai, bipertsonalaren ordeztu tripertsonala jaso zuen:

- *kikoso korrek ezdaitad pikatan* (275 orr.)
- *zinez erraiten dezeit bata xan bear dazeidala* (307 orr.).

Beraz, eta nahiz diodan guzti horren frogagarri “sobra” dauden orri guztietan adibide batzu ipini ditudan, ondorioa hortxe dugu: ez da adizkirik (salbuespen bakanen bat izan ezik... eta halakorik ere ez oso segururik!) lehenengo eta hirugarren orrietan agertzen ez denik. Alferrikakoa izango zen, bada, galdera guztiak banan-banan egitea, hauek egin aurretik erantzunak zer-nolakoak izango ziren ondotxo jakinik.

## UZTARROZEKO ADITZ-TRATAMENDUARI BURUZ BI HITZ

Hona, norekin, zer-nolako tratamendua erabiltzen zen:

- guraso, aitonamona, apaizarekin... mintzatzean: xin zen
- anaiarreben arteko giroan mintzatzean: xin zia
- konfidantza gutxiagoko jendearekin mintzatzean: xin zunien.

Hara, Fidela andreak berak nolako adierazpena ematen duen:

“a un mayor-mayor **xín zren òrren ekústra** ‘vinieron a verla a usted’, eso”.

“**xín zuntién...** es a una como yo, y... a otra que es algo más que yo pero es así; ya ni es de usted ni es de tú, más que.. ya otro hablar”.

“y para decirle a la hija, **átzo xín zriá, morrói banák, yíre ekústra, baia ez biyagón étsen... xuan zriá ekùsi gábe**”<sup>8</sup>.

Azkuek, bere aldetik (241 orr.), honela zioen: “**nuzu** es familiar (?), mezclado de cortesía, de **naz**”. Eta orri berean: “**nintzazun** es familiar, mezclado de cortesía, de **nintzen**”. Galdera-zeinua nirea da, era horri familiar deitzea gehiegixko iruditzen zaidalako; gainera hemen ez da ematen, Ekialdeko Behe-Nafarrerarenak diren herri askotan bezala, **zu** eta **xu**, biak dituztela, zertzelada honek tratu-bereizkuntzarako hiztunari ematen dion abantailarekin. Hemen **zu** besterik ez dago, eta hau fuerte xamar ote den nago, “familiar” esaten zaion horretarako; Fidela Bernat-i ere, itxuraz, hala iruditzen zaio.

Aita K. Izagirrek ere, guzti honez, bere iritzia zuen, RSVAP aldizkarian (1959, 280 orr.) honela mintzo baitzen: “**Yi ta zu** erderazko ‘tú’ren ordezen ematen dituzte erri auetan. ‘Nosotros tenemos dos tú’ esaten zuten. Onegatik **zuk erran tzu ta yik erran duk**, biak berdin erderatzen ditut, berak bezela: ‘tú lo has dicho’. Baiña bien artean aldean badago: **zu** kanpoko berdinsamar batekin, lengusu batekin edo, erabilten omen dute”.

Eta adizki batzuren kokapenari dagokionez, azkenik, zera esan nahi ditut: Fidela Bernat-ek, salbuespen haundiz ez bada (eta halakoetan ere ez segurtasun haundiz) ez du bereizten gizon-emakumezkoekiko tratamendua —Ricarda Pérez eta Alvara Garde andreak, 1959.ean, artean bereizten zuten: **yik eztúk, eztún egósi** (290 orr.) eta **bíltu bar diaguk, bestela...** (296 orr.)—; horregatik, esaterako, lehenengo orriko 2 zenbakiko galdera erantzun gabe utzi dut<sup>9</sup>, nahiz gizonezko naizen honi **érori nún** esan. Honela jokatu dut aurrerantzean ere, zeren, bestela, emakumezkoekiko erantzunekin bete bailitezke gizonezkoekikoak oro. Iraganaldiarekin ordean bestela jokatu dut, Bonapartek argitara emaniko BIDANKOZEko adizkietan bi sexuekiko erantzunak berdinak zirela ikustean.

Eta besterik gabe, hona, ondoko orrietan, bilduriko adizkiak zein bere testuinguruaren arabera:

8. 1977.eko nire lanean —Fontes 25, 1977, 96 eta 97 orrietan— arazo hau arinki eta behar ez bezala tratatu nuela aitortu behar dut, **zuketx** delakoa bitan bereizten dela esatean. Ondorioz, “**atzo xín ninden ZUKETZ**-eko era arrunta erabiliz gero” idatzi nuen lekuan, “**DUKETZ**-eko...” idatzi egin beharko nuen gutxienez, horrelako indefinitua, ohiki, gurasoe-kin eta, oro har, errespetu haundiz tratatu beharreko pertsonekin mintzatzean erabiltzen baitzen.

9. Erantzun hau hiketan mintzatzean gizonezko bati *naiz*-en ordezen esan ohi zaiona da.

UZTARROZE (Erronkari)

Galde-zerrendaren lehenengo orria: aditz laguntzaile iragangaitza (persona bakarrekoa). 1-19, orainaldia; 20-38, iraganaldia.

zenbakia	eredua *	adibideak
1	NAIZ	<i>xín náz Izábarik</i> <i>bàratu bináz / ebináz eguártu</i> <i>ekústan diár xuaitán nazéla, pues málló-má-lloa.</i>
3	hik.alok.	<i>érori nún / eguártan nún anítx onki</i>
4	zuk.alok.	<i>xín nézu Izábarik / eguártan nézu gúzietan.</i> <i>bai, xuanén nezú óiara, xuánen nezú óiara órai</i>
5	ZARA	<i>nóntik xítan zra?</i> <i>éltan balín bazrá kóna</i> <i>égon zriá?</i>
6	HAIZ	<i>xín yaz / nóra xoáitan yaz?</i> <i>Balbína kúra, eguártan yazá?</i>
7	DA	<i>zér da bekátia? / nón egón da?</i> (oharra: azken hori ¿dónde ha estado (él)? eta ¿dónde ha estado (ud.)? izan daiteke) <i>nóla igártan dá tenprá...!</i> (oharra: nóla igártan dén... itxaron zitekeen, agian, esaldiak erlatibo-kutsu bat baduenetz. Balbina Ederra zenak (Fontes 40, 471 orr. 43) zer on den ógi kau! erabili zuen. Simona Anaut izabarrak, aldiz, (Fontes 40, 467 orr. 30-38) Fidela Bernat-ek bezala, gaizki zerabilen) <i>eta erítan balín badá...</i> <i>èzta're bátere!</i> <i>Santa Lucía bitá...</i> <i>xín diá ene aitá, Izábarik?</i> <i>eztia kalá edo zé(r)?</i> <i>bàdakigú zér den / edo... según nài dená</i> <i>baia iltan dénian... / xítan dénekó e... gizoná</i> <i>abér xítan dénez gizon korí...</i> <i>ebiltan dél'anitx / súa et'óro lótu déla</i>
8	hik.alok	<i>éri dú(k)</i> (oharra: duk ez du, ohiki, erabiltzen; ez da, beraz, batere segurua)

\*. Euskara batuan idatziriko ereduak indefinituari dagozkionaz dira; *bi* eta *zu*-kako alokutiboei egokiturikoak *hik.alok* eta *zuk.alok*. idatziz adierazi dira.

zenbakia	eredua	adibideak
9	hik.alok.	<p><i>aitanditxárko bát xítan dún kór</i>  <i>enetáko dún... tóko kaur</i>  <i>eztún áski / kében eztún télerik eta dèus eré!</i>  <i>àrrastrían égiten bitún, mezá, biárko...</i></p> <p>(oharra: ez dirudi bait aurrizkia —zubereraz beit eta erronkarieraz bit— alokutiboarekin uztartu behar denik, F. Bernat-ek inoiz egiten badu ere, nahiz bestetan —hirugarren orriko 1 zk.ko erantzunean, adibidez— ongi darabilen: órai xuán bar diár, órdia bitúr xuáitako)</p> <p><i>úrdu dún obéki zéla</i></p> <p>(oharra: úrdu dién... itxaro zitekeen, agian; hots, aditz laguntzaile iragankorrarekin: gipuzkeraz dirudi (era sintetikoa, indefinitua) eta nafarreraz iduri du (hau ere indefinitua). Horregatik diot, logika horren arabera, urdu du, urdu dién, urdu diezu itxaron ote zitezkeen, baina, aurrekoek esanikoa ikusiz gero, hor dugu Ricarda Pérez (RSVAP 1961, 397 orr.) úrdu dun sór dágola batekin, eta are Pastora Anaute izabarra ere (liburu berean, 402 orr.) kóri úrdu dun ánburri bat beزالا esaldiarekin; ontzat eman beharko ote da, beraz? Azkuek, dena den (252 orr.), ezdionari bear zau gentu oraino're urdu dion (= duen) dakan kura ematen du —BIDANKOZERako seguru asko—, itxuraz hobeki dagoena)</p>
10	zuk.alok.	<p><i>akáitan zu / biár xuánen zú / gúzia zú aziénda</i>  <i>Erronkárin badézu... gaxtá onki ón</i>  <i>egón... dézu, udán, órai, kében sènarremáztia</i>  <i>etia eta áurra</i></p> <p>(oharra: dezu hori, hor, ulertu egiten da agian —tzu behar bailuke— objektu plurala urrun samar dagoelako)</p>
11	GARA	<p><i>biár xuánen gidrá Izábara / órai xuánen gidrá</i>  <i>ánix génte xuán bigidrá...</i>  <i>baia áurten, xuántan (sic) bálin bagid(i)rá</i>  <i>gúziak òrdián...</i>  <i>xoáitan bagitrá...</i>  <i>xuáitan bàlin bagrá...</i></p>
12	hik.alok	<p><i>egón gituk / biár xuànen gitúk kará</i></p> <p>(oharra: gizezkoekiko alokutibo hauek oso nekez darabiltzanez —ia sekula ez— baliteke azken kasu honetako gituk horren azken kontsonantea hurrengo hitzaren lehenengo izatea; dena den tarteke n-rik ez da entzuten)</p>
13	hik.alok	<p><i>xín gitún égun / órai xuánen gitún</i>  <i>yíreki óraino're entelégatan bigitún</i></p> <p>(oharra: 9. zenbakiko lehen oharrean esaten dena bera da)</p>
14	zuk.alok	<i>xuánen gizú / xuánen gi(t)zú len</i>
15	ZARETE	<i>nón égon zrei?</i>

zenbakia	eredua	adibideak
		<i>àrren órdian órai xuáitan zrúi karrikára</i> <i>xoáneztrúi kébentík</i> (oharra: ztrei hori oso arraroa)
16	DIRA	<i>nóiz xin dra? / eta bestalá egónen drá irorétrai-</i> <i>no</i> <i>xitán bàlin badrá</i> <i>xínen bitrá órai áigaltra gúziak...</i> <i>xá ebidrá xuáitan méndiara...!</i> <i>xitán dréla... ésketra</i> <i>etsé kartán ègon dréna(k) / kùxalenák xitan</i> <i>drénian</i> <i>ta xuánen dré...</i> (oharra: dre hori oso arraroa)
		<i>éneki óraino`ré entelégaten drén, baia...</i> (oharra: dren hori ere oso arraroa; zren esan nahi izan ote zuen, agian?)
17	hik.alok.	<i>ez; borraják... ezpítuk egínik!</i> (oharra: gizonezkoekiko alokutiboa —arraro xamarra dena— bit aurritzkiarekin uztartzeaz gainera —ikus 9 eta 13 zk.etako oharrak— Uztarrozen ohiki ematen ez zen sandhi bat gertatu da, gehienez ere ebituk eman beharko baitzukeen)
18	hik.alok.	<i>Izábarik xín tun / tsai(s)tán tun almadiéroak</i> <i>xuáitan ditún... bòrz et`érdia(k)</i> <i>eta bízi`titún...</i>
19	zuk.alok.	<i>xín zú morrói banák yìre ekústra</i> <i>eta órai xuán (t)zú, átzo, gúziak Errib(e)rára</i> <i>xa... ándiak, xuàitán tzu</i> <i>xínen bitzú</i>
20	NINTZEN	<i>àmandréa, ní xuán nindén átzo...álúrriara</i> <i>fuán binindén...</i> <i>ník kóri éztakiar; áur bininzén... èztakiár!</i> <i>èltu nindénian lúrriara</i> <i>bàia ezakiá... xoán nindéla àstra bériz</i>
21-22	hik.alok.	<i>karrikán egón nindíá / xuaitán nindíá... pu-</i> <i>rrúnduká</i> <i>ènindeá (sic) eguártan!</i> <i>e! oráino xuànen ninziá ónki ta éginen niá...</i> <i>eta góxan... ázkatan nundíá eta émon abrér,</i> <i>xátra</i>
23	zuk.alok.	<i>átzo xoán nindézun ní méndiara; a una como</i> <i>yo y... algo mayor y así</i>
24	ZINEN	<i>nón egón zindén?</i> <i>átzo xóán zin(t)ziá, xuán zindriá méndiara?</i> <i>¿ayer fuistes al monte?</i>

zenbakia	eredua	adibideak
		(orainaldian ere bai): <i>égon zriá méndian átzo? ¿estuvistes ayer en el monte?</i>
25	HINTZEN	<i>yí xoán yindén</i> <i>átzo xoán yindíá méndiara? / átzo égon yindíá méndéan?</i>
26	ZEN	<i>nór xin zen átzo?</i> <i>fáltatan bálin bazén zerbái(t), pues atzíri!</i> <i>konténto èltu bizén étsera!</i> <i>ebizén erkítan</i> <i>gízon xin zéna átzo, zaguá éri</i> (oharra: EAELean bildu eta argitara emana. Gízon xin zéna átzo horrek, bestalde, erlatiborako lehia berezia erakusten du, ibar guztian, antza denez, oso zabaldurik zegoena. Hona, esaterako, Azkuek "Proverbios" atalean bildu izaniko batzu: 32. arri tiratan denak ezdu begirik 74. eltxano teste bear ezyuana eitzak erakitzala 88. etse onki dagoniara krutxea bortara 253. zanko eginik daudenak lantzatra ezdokei kausi baratra Antonia Anaut izabarrak ere (Fontes 25, 83 orr.) honakoa bota zidan Ameriketara joan zitzaizkion bi anaiei buruz hitzegiten ari zela: — ta úra, àl zien gísa, tsérteka, xoán... àrtze-máitza, étse... amáño zíéna, amáñoèn zíéna Geroxeagoko erantzunetan ere bai, diodan bidenabar, baduzu hauen antzeko beste kasu pare bat, gutxienez).
27-28	hik.alok	<i>eta baràtan zénian...</i> <i>karbónko edo kóla izànen zéla, ágrian</i> <i>átzo xín zia / zía ánitx ándi ollárra!</i> <i>bàia géro géntu zía (gazteleraz = pero luego se quitó)</i> <i>eziá eguártan déustare</i> <i>mítiltakó, zér gízon májo izànen zía, e?</i> (oharra: testuinguru horretan ez dirudi egokia, ez esaldi honetan ez hurrengoan, alokutiboaren tratamenduak)
29	zuk.alok.	<i>eta gízon korí, xoán biziá méndiara...</i>
30	GINEN	<i>átzo xín zunien</i> <i>xoán gindén méndiara</i> <i>áur bigindén...!</i> <i>eta... xuáitan gindénak Fránziará</i> <i>eta... èltan gindénian...</i> <i>xoán gintzé(n)</i> <i>xuán gi(n)zén</i> <i>irorétan eta xuáitan bigintzén méndiará...</i>

zenbakia	eredua	adibideak
31-32	hik.alok	<p><i>xuàitan ginzéla Fránziará</i>  <i>eta géro, xítan gin(t)zénian é(t)será...</i>  <i>xuàitan... girénian ere bai</i>  <i>eta xítan gid(e)rénian...</i>          (oharra: azken bi esaldietako girénian eta gid(e)rénian horiek oso bitxiak iraganaldirako)</p> <p><i>átzo xín gindia</i>  <i>átzo xoán gin(t)ziá... bíak méndiara</i>  <i>átzo xoán gi(n)tiá yí eta ní méndiara</i>  <i>átzo xoán gintíá</i>  <i>eta tsoán gitiá egítatrá álur batrá</i>          (oharra: álur batrá(n) (!) aditzen dela dirudi)</p> <p><i>egùitan (= egoitan) giniá rosáριοan</i>  <i>xuan gízia gú!</i>  <i>eta xoáitan gi(t)zeá Izábara</i>  <i>tunélaren péan, xuáitan gi(n)tziá eguatxá gó-</i>  <i>ra, erkítra... ètse bérri kétra</i>  <i>bàia lenáo xuáitan ginziá</i>  <i>eta... báratú(n) giziá mugán</i>          (oharra: parentesi artean ipini dudana hori lekuz aldatu ote zuen nago, báratu ginziá espero baitzitekeen)</p> <p><i>eta xoáitan gintzá...</i>  <i>eta gú, eginián</i>          (oharra: eginiá hobeki legoke, n-a galdurik)</p> <p><i>xuán gen(t)ziá eta...</i>  <i>èta eguatxáti, xuáitan gi(n)driá</i>  <i>átzo ègon gindirá Uztarrózen</i>  <i>eta xoaitán gūniá...</i>          (oharra: ü hori oso arraroa: guniá edo giniá, zer esan, zalantzatan egon dela dirudi, azkenean frantzieraren u-tik zubereraren ü-tik baino hurbilagokoa iruditu zaidan soinu bat ahoskatu duela)</p> <p><i>eta... góxanik, azkáta(n) guniá zor(t)ziétan</i>  <i>eta géro, kántik, bueltán gunziá eta... ezpar-tiñára</i>  <i>lenágo ez gundiá xoáitan báriara (= tabernara)</i>  <i>ène tenprán xuàita(n) guniá</i>  <i>kán defénditan guntíá</i>          (oharra: gindiá behar luke —gunia, guntia eta abarrekoek iragankorrerako aproposagoak dirudite, gainera— baina ez da harritzekoa u eta i bokaleen arteko asimilazio eta disimilazioak kontutan harturik)</p> <p><i>xoáitan bi(n)gintzeá... tiendára</i>          (oharra: 9. zenbakiko lehen oharra ikus)</p>



zenbakia	eredua	adibideak
33	zuk. alok.	<i>átzo ègon gindézun</i> (laguntza pixka batekin emana)
34	ZINETEN	<i>xuán zínzrei; xuán zinzréi átzo biák méndia-ra, ayer fuisteis los dos al monte, xuán zindreì! nón egón zindéin?</i> (laguntza pixka batekin emana) (orainaldian ere bai): <i>eta átzo, ziók, nón egon zréi?</i> (oharra: azkenurrengo zindein hori berak emani-koa baino egokiagoa iruditurik, egin nion galdera, eta berak baietz. Hala ere, itxuraz iraganaldiz eta orainaldiz nahasiriko bi era horiek dira, berez, eman zituenak)
35	ZIREN	<i>xín zren, òrren ekústra</i> (gazteleraz =... a verla a ud.) <i>ánitx ándi... eta lódi bàlin bazrén madéroak íntxatan bàlin baz(i)rén...</i> <i>eztakiár, zrénez bordáltu(k) ela zrénez neskáto eta buèltatan zrénian...</i> <i>egón zrèla eta éz ékusi ére...</i> <i>Léiriara xoáitan zrién</i> (oharra: zrién hori oso arraroa)
36-37	hik.alok.	<i>lenáu ábra(t)sak sólo zriá agúdo àitatomák xín zriá átzo Izábarik ta kobésatan zreiá, zriá eta ebíltan zreiá... abuéloak guárda</i>
38	zuk.alok.	<i>xoán zuntién / eta emoítan zuntien</i>

Galde-zerrendaren bigarren orria: aditz laguntzaile iragangaitza (bipersonala). 1-20, orainaldia; 21-40, iraganaldia (obj. singularra). 41-60, orainaldia; 61-80, iraganaldia (obj. plurala).

zenbakia	eredua	adibide batzu
1	ZAIT	<i>baia órai á(t)zetan ta</i> (oharra: ta hori, itxuraz, oklusibo ozena gorra bihurtu izanaren ondorioa da. Hau ez da batere harritzekoa erronkariarren fonetika —kebenti, gentu...— pittin bat ezaguturik). <i>níri'ré tókatu dēá(?), eramáitia Àma Birjína</i>

zenbakia	eredua	adibide batzu
3	ZAIT-en hik.alok.	<i>ázetu dun gúzia! —niri, alegia— niri érori dún ságarra eskiétarik lúrriara</i>
12	ZAIGU	<i>òrai (apez) zár bat bizagú (xin) ...anítx onki</i> (oharra: oso bakana; zalantzazkoa beraz)
22-23	ZITZAIDAN-en hik.alok.	<i>eta átzo eré érori zía faldátik lúrriara a(t)zé zia —niri, alegia, aurreko esaldian be- zalaxe—</i>
29-30	ZITZAION-en hik.alok.	<i>pues, niéto bát, il zioá...(!) árres bát, modórrá- tuk. (galdera): nola erraitan da “le tocaba (el turno)”? (erantzuna): tókatan zioá ástea órai</i> (oharra: ez dakit erantzun hau hemen ala 10. orri- ko 29-30ean kokatu behar den; dena den datibo-ezaugarri bat, hori bai, ageri dela dirudi)
33-34	ZITZAIGUN-en hik.alok.	<i>gúri eré érori zía átzo étsia</i>
38-39	ZITZAIEN-en hik.alok.	<i>ene aizpér átzo érori zía é(t)sia</i>
43	ZAIZKIT-en hik.alok.	<i>ditunának (=dituranak?), gúziak; sàkar-mon- tói (sic) bát, binién... áltzoán, eròri tún gúziak lúrriara</i>
50	ZAIZKIO-ren hik.alok.	<i>aitári eré érori dún bèste ságar banak</i> (oharra: hemen ere tun behar luke, gutxienez, lo- gika honetan sarturik egonez gero; galdera “y al padre también se le han caído otras (manzanas)” izan da)
56	ZAIZKIZUE	<i>érori dún zìen eskútik</i> (oharra: pluralizatu gabe eta hiketan gainera, plu- raleko 2. <sup>a</sup> izan arren; galdera “se os han caído a vosotros” izan da) <i>x(u)ánen zaziér (edo zaxiér) (!) bértan eskolá- ra</i>
62-63	ZITZAIZKIDAN-en hik.alok	<i>érori ztia (sagararak)</i> (oharra: ztia hori iragankorrerako da egokia, ho- netarako zria itxaron beharko zelarik)

Galde-zerrendaren hirugarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (bipersonala). 1-20, orainaldia; 21-40, iraganaldia (obj. singularra). 41-60, orainaldia; 61-80, iraganaldia (obj. plurala).

zenbakia	eredua	adibideak
1	DUT	<p><i>lotu dúr súa</i>  <i>órai xuán bar diár, órdia bitúr xuáitako</i>  <i>eta ník ústan bálin badúr, gáltan durála... zer-báitekí</i>  <i>ník eztúr éntzun, éntzutan...</i>  <i>ezturá erráitan?</i>  <i>ebitúr elérraitan</i>  <i>entelégatu duná nóla érran durán?</i>  <i>ník emon durána</i>  <i>baia ník, ezturála entélegatan, pues eztakiár</i>  <i>erráitan duránez ónki eré...</i></p>
2-3	hik.alok.	<p><i>ékusi diár / kònge égun, zér égin diar?</i>  <i>baia eztiár nai</i>  <i>ùrdu dún ekústan diéla!</i>            (oharra: "ikusten dudala dirudi" —ikusten ari naitzela, alegia— da esan nahi izan zuena; durala behar luke, bestalde).</p>
4	zuk.alok.	<p><i>bar diéz egin ník gúzia! / órai ázkatu diez</i>  <i>baiá, déus er'éz éztier</i>            (oharra: azken hau, erdi diez erdi diar ote?)</p>
5	DUZU	<p><i>nài baduzú...</i>  <i>orái kuen... gúzientáko xátan balin bazú...</i>  <i>órai... nóra x(u)án bar zu?</i>  <i>zér báskalten tzu?</i>            (oharra: baskalten hau bazkalduren edo bazkalduko delakoa da)</p> <p><i>entelégatu duziá?</i>  <i>ardáu, edànen ziá?</i></p>
7	DUN	<p><i>zér égotxi dun kóna?</i>  <i>entelégatu duná?</i>  <i>yík éz? eztún entelégatan? gàno diéna</i>            (oharra: azken hori "gogo du(n)ana" izatera dator; ongi erabilia ote?)</p> <p><i>eta yík, érran zán kastellánoa, abér entelégatan diènez!</i>            (oharra: azken hau "ia ulertzen du(n)an!" izatera dator)</p> <p><i>bueno, bar duná edán béste... txortáixko bát?</i>  <i>drézatu duná báskaria?</i></p>
8	DU	<p><i>nórk egin dú...?</i>  <i>baiá, eúri egítan ba(l)din badú</i></p>

zenbakia	eredua	adibideak
		<p><i>dólu emó(n)tan bitú</i>  <i>ebitú emóitan lúrrak gária ónki</i>  <i>eta ze ó(t)z egitan du! / zér egitan dú lótsa!</i>                      (oharra: lehenengo orriko 7 zk.ko 2. oharra ikus)</p> <p><i>íkusi diá?</i>  <i>étsia ígan duá?</i>                      (oharra: dua hori oso arraroa)</p> <p><i>óra(i), norá x(u)an bar du?</i>                      (oharra: gazteleraz ari izanez gero honela esango zukeen: "ahora —usted— ¿a dónde ha de ir?")</p> <p><i>eztakiár nóntik erkítan dién</i>  <i>eta... mázte diéna...</i> (hots: "eta... duen emaztea...")  <i>eta abér, sáltatan diénez!</i>  <i>tíra txíki... diéla</i>  <i>máztia(k) eztiéla ekústan déus eré</i></p>
10	hik.alok.	<p><i>edátan dien ánitx</i>  <i>eztien... sinestén</i></p>
11	zuk.alok.	<p><i>senárrak entelégatan diézu gúzia</i>  <i>et'korrengátik diézu... kainbéste tíra</i></p>
12	DUGU	<p><i>zér egitan dúgu kében biák sólo órai?</i>  <i>órdia bitugu</i>  <i>erági niá baia kében ebitugu... egitan kóri...</i>  <i>al dúgun gúzia</i>  <i>nái dugúna</i>  <i>éltzia bueltatan dugúnian</i>  <i>kàntatan dugúnian... kantxó(i) ño (b)át</i>  <i>abér ónki egitan dugúnez ezpartiná</i>  <i>órai erráitan dugúla...</i></p>
14	hik.alok.	<p><i>órai xuan bar diágun biák étsera</i>  <i>pues eztiágun nái déus eré</i>  <i>órai eztiágun bekátu... éurkek eré!</i>                      (oharra: ikusgarria eurkek hori; itxura denez, lehenengo agente-ezaugarria —lehenengo k, alegia— fosildurik geratu da, bigarren bat hartuz)</p> <p><i>órai, bar tiágu(n) kében... amíntto bát... des-kánsatú</i>  <i>ta géro, zér bar diágun?</i>                      (oharra: galdera izatean ez dirudi alokutiboa erabiltzea egokia denik)</p> <p><i>kében ègon bar diágu?</i>                      (oharra: gauza bera; n gabe eman duela ikusiz, indefinitu eta alokutibo, bien artean geratu ote da, agian?)</p>

zenbakia	eredua	adibideak
15	zuk.alok.	<i>gúk ekun diáguzu... béurr et'óro, sótoetan amíntto bàteki, gúzia xànen diáguzú óbeki zarrék, gáxki ànitx erràitan diáguzu, baia egiáreki</i>
16	DUZUE	<i>zér igari zéi? biltu zeia laká? ezeia ekúsi bérin e áxatan... éltzia?</i>
17	DUTE	<i>kuék, zé érran déi? bàlimadéi ténpra... bàia eztéi náí... éurkek ére xoán bitéi gizón bát... ebitéi ténprari(k)! konbersaziónea erágu déila (oharra: azken honek edo eragu deina edo eragu zeina (atzo) behar luke)</i>
19	hik.alok.	<i>ah, èztakíz, nóla erràitan déin kóri erràitan déin gázték eztéin egítan kainbéste gázta</i>
20	zuk.alok.	<i>morroiék irabázten zéi ánix ta kór, zúbian, egítan zéi bueltá náí dizéi / dizéi... bèste léku batán beste bát ígari dézei... amabórz égun xin gábe</i>
21	NUEN	<i>pues ekún nien... péna tíratan balin banién... ekúsi binién gúzia ñóttorík... eta géro mándoarekí edo zámari... e báí, èkun niéna èkun niénian kében</i>
22-23	hik.alok.	<i>ékusi niá elizán pues baniá, kontúxko bát, kóntatakó... uská- raz ta ník ez niá entzún mezárik ere</i>
24	zuk.alok.	<i>ník ùste niézun bordáltú zela xa...</i>
25	ZENUEN	<i>nón xan zunién? (laguntza pixka batekin ema- na)</i>
26	HUEN	<i>èmon yién / átzo nón báskaltu yién? átzo xan yuén Búrgin</i>
27	HUNEN	<i>nón xan yunén? / átzo xan yunén Búrgin</i>
28	ZUEN	<i>nóla bar zién béra sólo buéltatu? nài balin bazién... (e)lén ezi xuán Amerikétra baiá, bizién étsia... biltakó, ezéin gálten... Ricarda, erràitan ziéna órrek (oharra: gázteleraz ari izanez gero horrela esango zukeen: "Ricarda, la que decía usted")</i>

zenbakia	eredua	adibideak
		<i>izaguntan ziéla</i> <i>áurra(k) eziéla náí xoan náí</i> (oharra: náí horietako bat sobran dagoela dirudi; agian hori ere fosildurik geratu zaio, behin baino gehiagotan horrela darabilenez)
29-30	hik.alok	<i>baia ékun zía suérte...</i> <i>eta nai zía x(u)án étxera baia...</i> <i>pues gáiaz, biziá... gänöá</i> (oharra: lehenengo orriko 9 zk.ko 1. oharra ikus)
31	zuk.alok.	<i>nóla bar ziezun?</i> (oharra: adizki egokia bada ere, ez dirudi ongi era- bilia dagoenik galdera dela kontutan hartuz)
32	GENUEN	<i>zuézun el... el 8 de... de este mes.</i> (oharra: zuézun hori arraro samarra) <i>intzítan (=entzuten) gunién, bádagóla...</i> <i>eta éztakiár! azkénean zér egítan gunién</i> <i>gúziak... íltan bigunién txérri</i> <i>nai bálín bagunién...</i> <i>könke ene aítá eta tíoa, eramáitan guniéna lá-</i> <i>gun...</i> <i>ta egítan guniénean "hala, hala, hala!",</i> <i>pues...</i> <i>presá... dión, rotá erráitan guniéla, rèbueltán,</i> <i>xoáitako Mintxátera; xoáitan bagitrá, pues kór</i> <i>zagoá (e)rrotá</i>
33-34	hik.alok.	<i>egín guniá bordáltako... mezá</i> <i>baguniá añú</i> <i>eguniá egóixtan...</i> <i>eta géro, egòixta gunián, míse bát ño</i> (oharra: egoixtan gunia behar luke; beraz, badiru- di n-a lekuz aldatu duela, lehenengo hitzetik bigarrenera pasatuz) <i>eta kében izàrtan gundiá ília</i> <i>ikútan gunziá eré txuntxúna</i> (oharra: gunziá hori arraro samarra; ikútan ho- rren orde, gainera, xotan itxaron zitekeen) <i>eta bàr deguná entrégatú, papér batetán, éne</i> <i>làna gúzia</i> (oharra: deguná hori, hori bai arraroa!)
35	zuk.alok.	<i>gúk átzo xan guniézun rekesóna</i> (laguntzaz emana)
36	ZENUTEN	<i>átzo nó n xan zunéin?</i>
37	ZUTEN	<i>egítan zéin, kan, rántxoa</i> <i>pues mágrak, zér bar zein éraman... órdéan?</i> <i>gúziatarik elamáitan bizéin!</i> <i>elerráitan zéina</i>

zenbakia	eredua	adibideak
		<p><i>nik, xarrèkitan zéinian, títiarí izárri ta “hála”!</i>  <i>en(t)zútan zéila... bàrrio gúzian</i>  <i>gária(k) ebizéin... kében rénditan déus eré</i>  <i>bazéila mítil bat</i>            (oharra: gazteleraz ari izanez gero honela esango zukeen: “que —ustedes— tenían un niño”)  <i>ebizú...-ten (!) plánik xuáitako ápal...</i>            (oharra: zalantzakor ibili ondoren, ibar honetakoa ez den adizkia atera zaio)</p>
38-39	hik.alok.	<p><i>lótetan zeia (almadia) árbol bánatrà</i>  <i>eta razióne ezeia xátan, éztare...</i>  <i>bazeia espáda bat</i>  <i>eta ez bálín bazeia egítan kolaxét...</i>            (oharra: bazeia hau desegokia da, baldintza-kasua izatean)  <i>eta géro, egòixtan zeinà astra bériz gátza</i>            (oharra: ñ hori oso arraroa)  <i>nón bar zeia xan?</i>            (oharra: hirugarren orri honetako 14 zk.ko 2 eta 3. oharren kasu bera da)  <i>eta eztakiár zómat éle erràitan zeia txárrinen-táko</i>            (oharra: gaizki erabilia zehar-galdera denez)</p>
40	zuk.alok.	<p>(ez du asmatu)            (oharra: Carmen Dronda-k bai —RSVAP 1953, 526-7 orr.— ongi asmatu zuen, eta gero ezezein nai sínetsi eta eta gúnian xínetsi zézein ederki eman baitzituen, eta gauza bera Antonia Anaut izabarrak ere —Fontes 25, 89 orr.— Simona izaguntan zezéin... eta morroiék bàr zizéin àrtú... emanez)</p>
41	DITUT	<p><i>ník ékusi túr, karrikán, eskína kartán, zauré-la; yo los he visto que estaban (ustedes) en aquella esquina</i></p>
42-43	hik.alok.	<p><i>ník xan tiár ságarra</i>            (gehienetan, halere, singularrean ematen du):  <i>egín diar, bai, zópak</i>  <i>ékusi diár ságarra</i></p>
44	zuk.alok.	<p><i>xan tiéz!</i>            (singularrean ere bai):  <i>sàrtú diez... ságar banák...</i></p>
45	DITUZU	<p><i>óskiak nún tzu?</i></p>
47	DITUN	<p><i>óskiak nún ditun?</i>  <i>óntziak éku(t)zi tuná?</i></p>
48	DITU	<p><i>eta yìre aíták nón tu óskiak?, xátetu tiá?</i>  <i>roskílla bának... ére, èztia náí?</i>  <i>órai bérián aíták xan ditú</i></p>



zenbakia	eredua	adibideak
50	hik.alok.	<i>tién títiak ánitx ándi eta eztokén ár aiták xán tién ígoak</i>
51	zuk.alok.	<i>xán ditiézu ígoak</i> (singularrean ere bai): <i>pues eginen diezú migák, eta...</i> <i>ah! badiézu baia ánix zár xá órai máztiak...</i>
52	DITUGU	<i>abér gú(z)tiak óngi (sic) egítan tugúnez gúzia(k)</i>
54	hik.alok.	<i>eta ráfiak, bar tiágun ízari, gúziak</i> <i>pues irur ilabéte nolanái igärtan tiágun, kében gúk izagúntu tiágun bétik...</i> <i>xán titiágu(n) gúk ere</i> (singularrean ere bai): <i>zér masadák ègin diágun!</i>
55	zuk.alok.	<i>xán tiáguzu</i>
56	DITUZUE	<i>eta ziek éré, morróiak, xan tuzéi?</i> (singularrean ere bai): <i>ziek éré xan zéi ságarra</i> <i>ziek xan zeiná... ságarra?</i> (oharra: azken honetan zeia espero zen)
57	DITUZTE	<i>arixkídiak xan téi, xan ditéi ságarra</i> (singularrean ere bai): <i>orái éré bádei, pantalón ketarík eragítan déi piperrák</i>
59	hik.alok.	<i>aixkídiak éré xan téin ságarra</i> (singularrean ere bai): <i>arrikáldiká... áutse déin krístal gúziak</i>
60	zuk.alok.	(singularrean ematen du): <i>eta kárgatan eta éramáitan zei (arbolak)</i> <i>eta korrengátik egin tzéi, égun, góxan, kan, mezá eta nobená</i> <i>orái ezéi eramáitan (txalekoak) dréunkek éré...</i>
61	NITUEN	(singularrean eman du): <i>eta áurra, er(r)amáitan bàlin banién... áu- rrak</i>
62-63	hik.alok.	<i>átzo xán nintía ñáur(k)</i> <i>átzo xán nundiá ník ságarra</i> <i>ník ekúzi tunián (haurrak)</i> (oharra: azken hau oso arraroa)
64	zuk.alok.	<i>xán ni(n)tiézun, xán niézun óbro</i> (singularrean ere bai; multzo bat izatean, agian?): <i>eta niézun... amabí edo... amaláu(r) úrte</i>

zenbakia	eredua	adibideak
65	ZENITUEN	(ez du asmatu) (oharra: zuntien itxaron zitekeen, lehen orriko 38 zk.ko erantzunean bezala)
66-67	HITUEN	(singularrean ematen du hasieran): <i>yík eré xán yién</i> <i>yitién</i> (lagundurik); <i>sí, porque es más de una</i>
68	ZITUEN	<i>gaizák eragù(n)tan tiénak</i> <i>Eulójioaren amá, ène úmia... gúziak, gúziak ékun tiena</i> (oharra: azken bi adizki horiek z(i)tien delakotik eratorriak dira) (singularrean ere bai): <i>aiták eré xán zien</i> (sagararak)
69-70	hik.alok.	<i>átzo xán ztiá ságararak aiták</i> <i>kárek àrtan (z)tiá gúziak; éniak àrten tiá... gúziak kórrek</i> <i>baia éku(n) tiziá...</i> (oharra: azken hau zitia-ren metatesia ote?) (singularrean ere bai): <i>aiták xán ziá ságararak</i> <i>eta amák egían ziá zopáixkoak</i>
71	zuk.alok	(ez du asmatu) (oharra: aiták ere xán ziá eman du; hots, ez du beharrezko alokutiboarekin asmatu eta gainera singularrean eman du, gehienetan ohi duen bezala)
72	GENITUEN	<i>ekúzta(n) guntién</i> (arropak) <i>eguatxán</i> <i>gúziak erámaitan biguniá (!) papèr batán, do-zéna(k)... guntiénak</i> <i>eta txérriak iltan gundiénian...</i> (oharra: arraro xamarra; gunien eta guntien, bien artean geratu dela dirudi) (singularrean ere bai): <i>txérri banák bigunién kolaxét</i>
73-74	hik.alok.	<i>úrte batéz, útzu guntiá...</i> <i>idòrtan guntiá kében</i> (baineták) <i>guárdatan ku(n)tiá</i> (sic) <i>gúziak txeláirian</i> <i>lenáu egunziá egítan kásorik, onguétra</i> (oharra: onguér —gazt. “a los hongos”— espero zitekeen) <i>géntu gun(t)ziá gúziak eta...</i> (singularrean ere bai): <i>baguniá... pálo banák, kolaxét</i> <i>eta igáitan guniá eskaléra bàna(k)</i>
75	zuk.alok.	<i>xán guntiézun</i> (lagundurik); <i>sí, sí, ya está bien...</i>

zenbakia	eredua	adibideak
76	ZENITUZTEN	<i>ziék xan zuntién (!) sagárrak</i> (oharra: nire ustez oraingo hau orri honetako 65 zk.ko erantzunerako bai, egokia izan daiteke, orduan asmatu ez bazuen ere, oraingo honetarako, behar bada, zuntein itxaron zitekeelarik)
77	ZITUZTEN	(singularrean ematen du): <i>eta áxuriák egítan zéin Erribrán ere</i> (ardiék) <i>eta ebizéin... ziki(n)tan</i> (golláriak)
78-79	hik.alok.	<i>eta... óltu zteiá... gízon koriék, éne é(t)seara xín zréila</i> (singularrean ere bai): <i>kán egítan zeíá almadiák</i> <i>eta izártan zeíá árri banák edo zerbái(t), kében eróstan zeíá zenbrák eta gázták</i> <i>bárdazeiá (!)</i> (pañueloek) <i>irorógei úrte, ágian órdian eramáitan zuduía... “zaragüelles”!</i> (oharra: zuduía hori oso arraroa)
80	zuk.alok	(ez du asmatu) (oharra: ène niétoak eré xán zeíá eman du; hots, orri honetako 71 zk.ko erantzunean bezala, ez du beharrezko alokutiboarekin asmatu eta singularrean eman du, gainera, bere erantzuna. BIDANKOZEN, Bonaparte printzearen garaian, ztezein bildu zen)

Galde-zerrendaren laugarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (bipersonala) 1-12, orainaldia (NAUZU...); 13-24, iraganaldia (NINDUZUN...) 25-36, orainaldia (GAITUZU...); 37-48, iraganaldia (GINTUZUN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
3	NAUN	<i>égun ékusi dún níri karrikán nagóla?, ¿hoy me has visto que estaba en la calle?</i>
6	NAU-ren hik.alok.	<i>órai bérián éraman dién niétoak Uztarrózera eta erági dién, máztia</i> (sic)... <i>etsérad(r)áino, géro</i> (oharra: gázteleraz zera izatera datorrena: “y luego (me) ha traído la mujer hasta casa”)
9	NAUTE	<i>níri éraman déi kótxean</i> (oharra: gázteleraz zera izatera datorrena: “(me) han llevado en el coche”)
11	NAUTE-ren hik.alok.	<i>nai déin éraman, me quieren llevar</i>

zenbakia	eredua	adibideak
15	NINDUNAN	<i>eta átzo erére (sic)... ékusi yiená níri karrikán?, ¿ayer me viste?</i>
17-18	NINDUEN-en hik.alok.	<i>niétoak éraman ziá níri kótxean</i>
22-23	NINDUTEN-en hik.alok.	<i>amabór(t)z úrtetan óltu(n) zeia... Fránziara, níri</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: "a los quince años (me) enviaron...") <i>òiltan zeia, àurren txátarrak... txatárren ekúz-tra, barrankóia</i>
27	GAITUN	<i>ékusi duná... égun, karrikán góri? gúri?, ¿nos has visto hoy en la carretera a nosotros?</i>
39	GINTUNAN	<i>eta ekúsi yiená, átzo ere báí, ègon ginziá...?, ¿nos viste? ayer también estuvimos...</i>
45	GINTUZTEN	<i>óbeki arrapátu zéila, bestalá, arrápatan balín bazéin...</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: "mejor que (nos) cogieron, de lo contrario, si (nos) cogían...")
46-47	GINTUZTEN-en hik.alok.	<i>eta erámántan (sic) zeia kalabózoara</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: "y (nos) llevaban al calabozo")

Galde-zerrendaren boskarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (bipersonala) 1-12, orainaldia (ZAITUT...); 13-24, iraganaldia (ZINTUDAN...); 25-28, orainaldia (ZAITUZTET...); 29-32, iraganaldia (ZINTUZTEDAN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
1	ZAITUT	(amari): <i>nón egon da? ékusu dúr, ékusi dúr karrikán zagóla; la he visto (a Ud.) que estaba en la calle. Pero ya es... hablarle de usted; de usted... le he hablaö</i> <i>nik, gizená(g)u izagúntan dúr órai óri.</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: "yo ahora lo conozco —lo encuentro— a Ud. más gor-do")
2-3	HAUT	<i>órai éramanen diár yíri</i>
13	ZINTUDAN	<i>átzo ékusi nién karrikán; que ya es de usted...</i>

zenbakia	eredua	adibideak
14-15	HINDUDAN	<i>yo a ti: karrikán égon nindia eta...</i> (oharra: ékusi níá yíri espero zen, baina ez zuen esaldia bukatu).
25	ZAITUZTET	<i>ník ékusi dúr... oriér, zauréla karrikán, eskína kartan; yo los he visto que estaban ustedes en aquella esquina. Ník ékusi túr (...), yo los he visto</i> (oharra: hirugarren orriko 41 zk.ko erantzunerako ere bai balio dezake, itxuraz)
25?	ZAITUZTET	<i>nón égon zrei? nón égon zrei, morróiak? ník ékusi diár zaudéila karrikán; yo os he visto que estabais en la calle</i>
29?	ZINTUZTEDAN	<i>eta á(t)zo, ere báí, ékusi zia karrikán zaudéila; ayer también os vi que estabais en la calle. Pero es todo de tú.</i> (oharra: pluraleko bigarren pertsonarekin hikako alokutiboa erabiltzen duela (!) kontutan hartuz, gutxienez níá bat espero zitekeen)

Galde-zerrendaren seigarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripersonala) 1-12, orainaldia, obj. singularra (DIDAZU...) 13-24, iraganaldia, id. (ZENIDAN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
3	DIDAN	<i>yík émon dún níri ságarra</i> <i>eta bértan émon dún, yík, níri ástra berriz;</i> <i>otra vez me la has vuelto a dar tú a mí.</i>
4	DIT	<i>eta árek buéltatu dú emóitra níri; y él la ha vuelto a dármela a mí</i> <i>égun émon dú órrek —“usted”, alegia— ságarra níri</i> (oharra: azken hau, adibidez, amari esaten zion)
6	DIT-en hik.alok.	<i>yíre ariskidia(k) émon dién níri ságarra</i> <i>kán egín dién, ensegida... kàfe amíntto bát, eta emón dién —“(me) lo ha dado”, alegia— amíntto bát, bàratu bináz, pues... un poco atontada.</i>
8	DIDAZUE	<i>eta ziek émon zéi níri ságarra</i>
11	DIDATE-ren hik.alok.	<i>eta... ék, buéltatu déin ene eskiétra ástra berriz; ellos me la han vuelto a mis manos otra vez</i>

zenbakia	eredua	adibideak
14-15	HIDAN	<i>átzo émon yién níri ságar bat</i>
16	ZIDAN	<i>átzo, émon zién, órrek níri; ayer también me la dio usted a mí</i> (oharra: aitari edo amari esateko modua, hau, adibidez)
17-18	ZIDAN-en hik.alok.	<i>errán zía níri ere</i> <i>èltu zénian ésketu zía ur</i> (oharra: azken esaldi hau lehen aipatu EAELean agertzen da)
20	ZENIDATEN	<i>eta ziók... émon zunéin níri ságarra</i>
21	ZIDATEN	<i>oraino're eguartan nun zer emon zein baskal-tra</i> (oharra: níri, noski)
22-23	ZIDATEN-en hik.alok.	<i>eta ék eré émon zeia níri ságarra</i> <i>èragútan bálín banién... zómait gáiza, pues géntan zeia karabinéroak, kében...</i>

Galde-zerrendaren zazpigarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripertsonala) 1-12, orainaldia; obj. singularra (DIGUZU...) 13-24, iraganaldia, obj. singularra (ZENIGUN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
1	DIGUZU	<i>zúk emon (t)zú góri, gaztá</i>
3	DIGUN	<i>yík gúri emón dún ságar bat</i>
4	DIGU	<i>órrek émon dú gúri gaztá</i> (oharra: gazteleraz, literalki, zera litzatekeena: "usted ha dado a nosotros el queso", hau da, "berorrek eman digu gazta").
11	DIGUTE-ren hik.alok.	<i>morrói koriék émon déin gúri gaztá</i>
17-18	ZIGUN-en hik.alok.	<i>óltu zía... —guri, alegia— kárta batetán</i>
22-23	ZIGUTEN-en hik.alok.	<i>eguérdiz emóitan zeia... patronák, pláter bát alúbia edo... zéra, báskaltako —guri, alegia—</i>

Galde-zerrendaren zortzigarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripertsonala) 1-12, orainaldia, obj. singularra (DIZUT...) 13-24, iraganaldia, obj. singularra (NIZUN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
2-3	DIAT/ DINAT	<i>ník emon diár yíri égun, ságar bat</i> <i>artú duna ságarra... ník emon durána yíri?</i>
14-15	NIAN/ NINAN	<i>ní(k) buéltatu niá —hiri, alegia—</i>

Galde-zerrendaren bederatzigarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripertsonala) 1-4, orainaldia, obj. singularra (DIZUET...) 5-8, iraganaldia, obj. singularra (NIZUEN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
1?	DIZUET	<i>ník emón diár ziór ságarra</i>
5?	NIZUEN	<i>eta átzo ere báí, t'émon niá ságarra ziór</i> (oharra: azken bi esaldi hauetan ere "yiketx" ari da, NORI kasua pluraleko 2. pertsona izan arren)

Galde-zerrendaren hamargarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripertsonala) 1-20, orainaldia, obj. singularra (DIOT...) 21-40, iraganaldia, obj. singularra (NION...) 41-60, orainaldia, obj. plurala (DIZKIOT...) 61-80, iraganaldia, obj. plurala (NIZKION...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
1	DIOT	<i>ník émon dúr ságarra órri, —"a usted", alegia—</i> <i>amandréa, òrren ságarra émon dúr Pédrori</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: "señora madre, su manzana —de ud.— (se) la he dado a Pedro").  <i>eta abér! tókatan duránez... bésteari</i> (oharra: esaldian datibo-kasua agertzen denez gero, honelako itzulpena egin liteke: "eta ia! jo egiten diodan... beste (makila)ri", alegia)



zenbakia	eredua	adibideak
2-3	DIOT-en hik.alok.	<i>ník emon diár yire amári ságarra</i> <i>ník eztiár eskétatan gòre Jéinari... beste gáiza-rik</i>
4	DIOT-en zuk.alok.	<i>ník émon diez gaztá Pédrori</i>
7	DION	<i>eta yík eré émon dún amári ságarra</i>
10	DIO-ren hik.alok.	<i>gízon karék emon dién yire amári ságarra;</i> <i>aquel hombre también le ha dao a tu madre la manzana.</i>
11	DIO-ren zuk.alok.	<i>eta bestalá egítan diézu berarí... y si no que</i> <i>(se) la hace él mismo —senarrak bazkaria, alegia—</i>
14	DIOGU-ren hik.alok.	<i>gúk émon diágun ságarra aitári</i>
16	DIOZUE	<i>eta ziék ere báí, émon zei; vosotros también le habéis dao</i>
19	DIOTE-ren hik.alok.	<i>eta besteék émon déin an—, ántxineti, gòre áinzineti; los otros le han dao antes que nosotros.</i>
21	NION	<i>émon nién ságarra —Pedrori, alegia—</i> <i>ník émon nién á(t)zo ságarra órri —“a usted”, alegia—</i> (oharra: hauez gainera, guztiz arraro den nió bat agertzen da honako esaldian: ez nió ekústan —senarrari, alegia—, ez nien, nia edo niezun ekustan senarra erabili ordez).
22-23	NION-en kik.alok.	<i>ta ník emun niá átzo ságarra kórri</i> <i>eta érran niá morróiari:</i>
28	ZION	<i>eta árek eramáitan ziá kóntia... zér égur bar zién émon... lábiari</i>
29-30	ZION-en hik.alok.	<i>eta aiták émon ziá lokainká sémeari</i> <i>aiták émon ziá morróiari lùkainká</i> <i>baia... dólu emóntan (sic) bitú, emóitan bizió</i> <i>(=bizion?), pues báratu ziá kán, ene sémiareki</i> (oharra: orri honetako 21 zk.ko erantzunari egini-ko oharrean bezala, bizió hori oso arraroa da —bizion behar bailuke, gainera, izatekotan—, era hauek normalki erabiltzen ez dituelako. Aspaldian zerbait entzun izanaren arrastoa ote?)
31	ZION-en zuk.alok.	<i>átzo emón ziezun aiták sémeari (laguntzaz emana)</i> (oharra: hirugarren orriko 31 zk.ko erantzunean emana, ezeren laguntzarik gabe)
33-34	GENION-en hik.alok.	<i>trílloarí emóita(n) guniá bueltá</i> <i>eta bèsteari, xótan guniá kalaxét</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: “y al otro —palo— (le) pegábamos así”)

zenbakia	eredua	adibideak
37	ZIOTEN	<i>anix lan... emóitan zéila</i> —haiek berari, alegia—
38-39	ZIOTEN-en hik.alok.	<i>eta egítan zeia (h)uérta, gatzári</i> <i>égin zeia autosia, morróiari</i>
42-43	DIZKIOT-en hik.alok.	<i>i(r)órak, ník arrápatu tzíar... kómadrónari</i> (oharra: hirugarren orriko 42-43 zk.ko erantzunean egokiro emana)
59	DIZKIOTE-ren hik.alok.	(singularrean eman du): <i>eta ástra bériz egòistan déin mátxoari... àr-diák</i> (oharra: hirugarren orriko 59 zk.ko erantzunean egokiro emana)
69-70	ZIZKION-en hik.alok.	(singularrean eman du): <i>eta... bezína bát (sic) egítan zia... áurrari</i> <i>pañálak eta mantillák</i> (oharra: hirugarren orriko 69-70 zk.ko erantzunean egokiro emana)

Galde-zerrendaren hamaikagarren orria: aditz laguntzaile iragankorra (tripertsonala) 1-20, orainaldia, obj. singularra (DIET...) 21-40, iraganaldia, obj. singularra (NIEN...) 41-60, orainaldia, obj. plurala (DIZKIET...) 61-80, iraganaldia, obj. plurala (NIZKIEN...)

zenbakia	eredua	adibide batzu
1	DIET	<i>ník erráitan bitúr gáxki nietuér</i>
2-3	DIET-en hik.alok.	<i>ník emon diár ságar bát morrói korrier; ságar bana!</i> (oharra: korier behar luke) <i>eta ník: abér irabáztan diénez!</i> (oharra: ez dirudi nez atzizkia alokutiboari erans-tea gauza egokia denik; ikus, bestela, hamargarren orriko 1 zk.ko hirugarren adibidean nola darabilen)
4	DIET-en zuk.alok.	<i>baia... ník erráitan diéz(t), berér</i> (oharra: diezut baten jatorria erakusten duen diez hori honela entzuten da beti, batere t-rik gabe. Hala ere esaldi bakar honetan iruditu zait, agian, zertxobait entzutea).
10	DIE-ren hik.alok.	<i>árek... déitan dién bestés (= bestér)</i> (oharra: gazteleraz zera izatera datorrena: “ella —la reina— (les) llama a las otras —abejas—”)

zenbakia	eredua	adibideak
14	DIEGU-ren hik.alok.	<i>morroiér oráino eré erráitan diágun: aitandit-xárko... úrdu yaz!</i>
16	DIEZUE	<i>àitatomér, eztéir (?) ekú(n)tan respéto, nóla bar zéi ékun... abueloér?</i>
17	DIETE	<i>emón bar déila... bueltá... lurrér</i>
21	NIEN	<i>ník emòitan bàlin banién (=banuen) bí arráutze...</i>
22-23	NIEN-en hik.alok.	<i>eta ník emóin niá... —haiei, alegia, aurrekoan bezala— eta ník á(t)zo ere báí émon niá ságar bána morróier, kórrier; ayer también les di yo a cada manzana a esos chicos</i> (oharra: morróier eta kórrier hitzek daramaten azentua oso bitxia da; mutiko bakar batetan pentsatzen ari ote zen nago, azkenean nahastera etorritz. Koriér behar luke, gainera)
29-30	ZIEN-en hik.alok.	<i>ápezák értan (sic) zía gúzia maztér</i>
32	GENIEN	<i>nai bàlin bagunién... déitu... azkaziér, pues...</i> (oharra: ez dakit esaldi hori hor ongi kokaturik dagoen. Esan nahi izan duena, erreferentzi gisa gaztelera harturik, zera litzateke: "si queríamos... llamar... a los parientes, pues...")
33-34	GENIEN-en hik.alok.	<i>pues morroiér emòitan guniá... ník, séi séme... eta... títiaréki sólo; eguniá déus ere emòitan</i>
37	ZIETEN	<i>eztakiár, emòitan zéinez zerbáit —haiek haiei, noski—</i>
38-39	ZIETEN-en hik.alok.	<i>eta... bestér —ardiei, alegia— egitan zeia, biárrian... píko bat</i>
42-43	DIZKIET-en hik.alok.	(singularrean eman du): <i>pues añáditu diar... béta banák, alubiér</i> (oharra: hirugarren orriko 42-43 zk.ko erantzu-nean egokiro emana. Hala ere, gehienetan, singularrean ematen du).

Honeraino, Uztarrozeko datuak direla-ta, Pedro de Yrizar jaunari bida-liriko informazioa.

EUSKALKI HONETAKOAK DIREN  
HITZ BATZUREN ESANNAHIA

<i>aigari, aigaltra</i>	afari, afaltzera.
<i>aitanditxarko</i>	txomiralo. Azkuek, bere hiztegian, “espantajo de los sembrados, épouvantail des champs ensemencés” dio.
<i>akaitu</i>	akitu, nekatu, unatu
<i>amintto bat</i>	pixka bat, pittin bat, apurtxu bat.
<i>añu</i>	ahuntzume, antxume.
<i>apal</i>	behe, beheiti.
<i>arren</i>	alta, bada. <i>Arren ordian...</i> = ba(da) orduan...
<i>arres</i>	ardi; abeltxehe, ilagente.
<i>astra</i>	ostera, berriz. Zuberoan duten “harzara” bera da. Fidela Bernat-ek, alabaina, <i>berriz</i> hitza erantsi ohi dio beti: <i>astra berriz</i> .
<i>atzetu</i>	atzendu, ahantzi, ahaztu.
<i>atziri</i>	atzera, gibelera.
<i>axatu</i>	haizatu, haizeman.
<i>azkatu</i>	jaiki, jagi.
<i>azkaziak</i>	ahaideak, senideak.
<i>baratu</i>	geratu, gelditu.
<i>beta</i>	zerba.
<i>bordaltu</i>	ezkondu.
<i>drezatu</i>	prestatu, gertatu. “Aderezatu” izatearen itxura osoa du.
<i>eguartu</i>	ohartu, konturatu. Izaban <i>ogartu</i> .
<i>eguátxa</i>	ibai. Baldin mugatzen bada, <i>eguátxa</i> = ibaia.
<i>ekun</i>	ukan, eduki. Zuberoan “ükhen”.
<i>ekuzi</i>	garbitu. Gazteleraz “lavar”.
<i>ele</i>	hitz, mintzo, berba.
<i>elerran</i>	hitz egin, mintzatu, berba egin.
<i>eltu</i>	iritzi, ailegatu.
<i>eltzu</i>	eultzi.
<i>entelegatu</i>	ulertu, aditu.
<i>eragi, eragu</i>	ekarri.
<i>eritu</i>	gaisotu, gaizkitu.
<i>erkin</i>	irten (iragangaitza); atera (iragankorra).
<i>espada</i>	gaztanezpata.
<i>ezi, ezik</i>	baino. <i>Lén ezi xuán Amerikéttra</i> = Ameriketara joan baino lehen.

<i>igari</i>	igaro, iragan, pasatu.
<i>ile</i>	artile.
<i>izari, izarri</i>	ezarri, jarri, ipini, kokatu, paratu.
<i>kuxalenak</i>	lehengusinak.
<i>lotetu</i>	lotu, estekatu.
<i>lotsa</i>	beldur.
<i>lotu</i>	itzali, itzungi, amatatu.
<i>mallo-mallo</i>	emaro-emaro, poliki-poliki, astiro-astiro.
<i>mazte</i>	emakume. "Emazte" ere bai izan daiteke.
<i>mitil</i>	mutil gaztea. Gaztelerazko "mozo casadero" ere bai, izan daiteke.
<i>morroi banak</i>	mutiko batzu.
<i>neskato</i>	ezkongabeko emakumea.
<i>ño</i>	txiki, txiker, ttar.
<i>ñottorik</i>	ttikitatik.
<i>obro</i>	gehiago; Zuberoan "habo(r)o".
<i>oltu, oiltu.</i>	bidali, igorri.
<i>oskiak</i>	zapatak, oinetakoak.
<i>purrunduka</i>	zilipurdika, itzulika.
<i>rafe</i>	teitalu-hegala. Gazteleraz "alero del tejado".
<i>soto</i>	zamariak eta abelgorriak gordetzeko ukuilua.
<i>toko</i>	haur-jolas bat. Iruñean "irulario" deitzen zuten.
<i>tsatsi</i>	jaitsi, jautsi.
<i>txatarrak</i>	troxak, haur-oihalak.
<i>txarrin</i>	ardiaren hanketako hezur txiki bat.
<i>txelairu</i>	Azkuek, bere hiztegian "armario abierto en un muro o en un rincón, placard pratiqué dans un mur ou dans un coin" dio.
<i>txiki</i>	gutxi, gitxi.
<i>xatetu</i>	garbitu. Gazteleraz "limpiar".
<i>xin</i>	etorri
<i>zamari</i>	zaldi. Gaztelerazko "acémila" ere bai izan daiteke.

## AZKEN IRUZKINAK

Fidela Bernat-ek emaniko erak aztertutik aise ikus daiteke azkenbururaino iritsia den diglosi prozesu batek ezein hiztunari, honek hitzegiteko premiazkoak dituen azpiegituretan, zernolako trabak eta ezinak sorrerazten dizkion; hots, hizkeran nolako desitxuraketa eta jokatu beharreko adizkietan, kasu honetan batez ere, norainoko ordezkapena dakarkion, mintzaira honen egoera, honela, hondamendi-egoera bat bilakatuz.



Fidela Bernat lan honen egilearekin, Uztarrozen, 1976. urtean  
(Argazkia: Fermin Leizaola)



Fidela Bernat, eskuinaldean, Claudia bere ahizparekin eta bion lehengusu den Eulogio Orduna-rekin, Uztarrozen, 1989. urtean  
(Argazkia: familiak utzia)

Alabaina hau ez da hemen bakarrik gertatu, zeren, hain neurri haunditan izan ez bada ere, euskara desagertu berririk edo desagertzeaz dagoen Hegoaldeko Goi-Nafarreraren esparruko zenbait lekutan, adibidez, zenbait hitzun, haurtzaroan zerbait ikasirik ere, euskararen erabilera maldan behera etortzean gero eta gutxiago mintzatuagatik erabat trakestu izanaren ondorio, adizki tripertsonal batzu, ematen ezinak edo zailak gertatu eta, bipertsonalez ordezkatzeko hasiak baitira. Hona adibide batzu:

*ta apézaí... máztekiék emàten ginduén (eg)únero ógie*

Ongi erabilirik ere bai:

*bi sosékoa màten ba(da)... gindió*

Apolinaria Egozkue, 1895.ean sortua.

Inbuluzketa (Esteribar)

*(zuk man) zinué, átzo, guretáko sagárra; zigúzu*

*man duté zuri sagárra; dizié*

*kárri nué, zurétako, altzúrre*

(oharra: "(ayer) te traje la azada" zen galdera)

*zuéi, kárri dugú, pastél bat zuendáko*

(oharra: "os hemos traído un pastel" zen galdera)

Domingo Bizkai, 1909.ean sortua

Eskirotz (Esteribar)

*átzo kárri nué... sagárra (haiei, alegia)*

*zúk eré... man duzú, óiei, sagárrak (sic)*

*karríkán daudén oiék eré... kárri'uté... oiéndako*

(oharra: "se lo han traído a ellos" zen galdera)

*zuétako kárri'út árdi bat*

(oharra: "te he traído una oveja" zen galdera)

*gázta... zú(re) tiéndatík erósi'út ník gázta áu*

(oharra: "te he comprado un queso" zen galdera)

Tomasa Villanueva, 1915.ean sortua

Aintzinoa (Erroibar)

*errá(n) tzué nère abuélai*

*ta errá zué áitai*

Ongi erabilirik ere bai:

*errán tzekó tíai*

Paca Larrageta, 1905.ean sortua

Hiriberri (Artzibar)

*emán dút (semeari, alegia) sagár bat*

Gregorio Arzelus, 1904.ean sortua

Orotz-Betelu

Jakina, lehia hau ongi menderatzen ez dituzten adizkietan jartzen dute agerian, erarik ohizkoenak ongi jokaturik ere. Oso bestelakoa da, ordea, aditz laguntzaile iragankorrenekin (bipertsonala) gertatu ohi dena: hots, gaurregun Hegoaldeko Goi-Nafarrera honi geratzen zaizkion lurralde urri xamarretan **nauzu**, **gaituzu**, **zaitut** eta **zaituztet** gisako adizkiek tripertsonalak diren **didazu**, **diguzu**, **dizut** eta **dizuet** direlakoei egin diete leku, noizean behin, salbuespen gisa behar bada, haietako bat edo beste entzuterik bada ere, Auritzen, agian, gehienik.



Baina Uztarrozero itzuliz, eta aditz sintetikoei dagokienez oraingoan, gure artean era honetan gehienik jokatzaren diren **joan**, **etorri**, **egon** eta **ibili** —iragangaitzetan—, eta **ekarri**, **eraman**, **eduki** eta **jakin** —iragankorretan— direlakoak, adibidez, gure andereak jokatzaren ez dituen esan egin behar da, **egon** eta **jakin** horiexen salbuespen bakarrarekin: *nago/nion/niozu/zande*, *yago, dago/dion/diozu...* alde batetik; eta *badakir/badakiar/badakiez, bada-kizu, badakin, badaki/badakien/badakiezu...* bestetik, adibide soil batzu besterik ez erakusteagatik.

Eta hiketan mintzatzean gure Fidela honek erabili ohi dituen emakumezkoekiko erak direla-ta, haurtzaroan bere amarekin eta honen ahizpa batekin —Luisa, azken honen izena— oihaneko lanetan eta, maiz ibili izanari zor omen zaizkio, era horretako hiketan —emakumezkoekikoan, alegia— hitzegiten baitzioten aipatu ama-izebak —eta horrela arituko ziren, jakina, beren artean—, Fidelaren adin beretsuko haurrak, artean, euskara galtzen hasiak zirela.

Hurrengo entrega batean (J.l.) duela oraindik denbora gutxi era honetako herrietan urtean zehar bizi izan duten gertaera desberdin askori pasadatxo bana ematen ahaleginduko naiz, doi-doi, ia oharkabea, behin betiko joan zaizkigun garai bateko lan-motak, bizimoduak, elizkizunak, festak, kontuak eta era askotako pasadizuak, hala nola orain arte aipatu gabeko bestelako aditz-joko batzu ere bai —ahalezkoa, subjuntiboa eta agintera, esate baterako— orri hauetara ekartzen saiatuko naizelarik.

Birmoldaketa eta gehigarriak  
1990.eko maiatzean prestatuak.  
K.A.

#### BIBLIOGRAFIA

- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA: *Euskalerriko Atlas Etnolinguitikoa (EAEI), Lehen zatia*, Donostia 1983.
- ARTOLA, K.: *Erronkariko 'uskara' ren azken hatsak... eino're!*, FLV 25, 1977.
- AZKUE, R.M.: *Particularidades del dialecto roncalés*, EUSKERA, XII urtea, 1931.
- BELOKI, J.J., ELOSEGI, J., SANSINENEA, P. eta MITXELENA, K.: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*, Boletín de la RSVAP, Donostia 1953.
- BONAPARTE, L.L.: *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tels qu'ils sont parlés à Aribé, à Jaurrieta et à Vidangoz*, Londres 1872.
- ESTORNES LASA, J.: *Erronkariko uskaraz elestak*, FLV 40, 1982.
- IZAGIRRE, K.: *Erronkariko euskal-ondakin batzuk (I)*, Boletín de la RSVAP, Donostia 1959.
- IZAGIRRE, K.: *Erronkariko euskal-ondakin batzuk (II)*, Boletín de la RSVAP, Donostia 1961.
- YRIZAR, P.: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala, 1981.

## LABURPENA

Aurreko lerroetan barrena erronkarieraz mintzo den ustezko azken hiztunak emaniko aditz-sorta luze xamarra biltzen da, zein bere testuinguruaren arabera, honek, noski, suposatzen duen bestelako ekarpen batzurekin batera. Alabaina, hemen bildurikoa modu indikatiboaren bi zati besterik ez dira, *nor* eta *nork-nor* direlakoak, alegia, Fidela andereak kontserbatu dituen bakarrak nahiz bi zaiotan euskalki honetakoak diren *yi* eta *zu*-kako alokutiboak ongi mantendu dituen. Erronkariko aditzaren desitxuratzeko eta galeraren berri Azkuek, 1931. urtean argitaratu emaniko "Particularidades del dialecto roncalés" izeneko lanean, agerian utzi zuen.

## RESUMEN

En las líneas anteriores se ha recogido, de labios de la, al parecer, última depositaria del dialecto roncalés, una relación bastante amplia de formas verbales emitidas dentro de diversos contextos, con las aportaciones de diverso tipo que esto, naturalmente, supone. Estas formas, sin embargo, pertenecen a tan sólo dos partes del modo indicativo, las denominadas *nor* —soy, eres, es...— y *nork-nor* —lo he, lo has, lo ha...—, únicas conservadas por doña Fidela, quien no obstante ha logrado mantener las formas allocutivas tanto familiares como respetuosas derivadas de las mismas. El progresivo deterioro del verbo y de otros aspectos de este dialecto fueron ya puestos de manifiesto por Azkue, en 1931, en su trabajo "Particularidades del dialecto roncalés".

## RESUME

Nous avons recueilli dans les lignes qui précèdent, de la bouche de celle qui est semble-t-il la dernière dépositaire du dialecte de Roncal, une relation assez vaste de formes verbales émises dans divers contextes, avec les apports de toutes sortes que cela implique naturellement. Cependant, ces formes appartiennent uniquement à deux parties du mode indicatif, celles appelées *nor* —je suis, tu es, il est— et *nork-nor* —je l'ai, tu l'as, il l'a...— qui sont les seules conservées par madame Fidela, qui a cependant réussi à conserver les formes allocutives tant familières que de respect dérivées de celles-ci. La détérioration progressive du verbe et d'autres aspects de ce dialecte a déjà été exposée par Azkue, en 1931, dans son étude "Particularidades del dialecto roncalés".

## SUMMARY

We have collected, along this article, a group of basque verbal forms produced in various contexts. These forms belong to the indicative mode, to the *nor* system "I am", "you are", etc and to the *nor-nork* "I have seen it", "You have seen it", "He has seen it", etc... —which are the only forms kept by Mrs.

Fidela, apparently the last speaker of the basque dialect from the valley of Roncal. However she has conserved the allocutive forms, both familiar and respectful, derived from the former. The progressive deterioration of the verb and other aspects of these dialect has already been exposed by Azkue in 1931 in his study "Particularidades del dialecto roncalés".

